

## ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA BATZAR OROKORRA

Partehartzaileak: Jon Serrano, Antxon Alfaro, eta Iñigo Landa.

Casares Kultur Etxean, 1995ko otsailaren 22an bildurik ondoko gaietara heldu genien:

### 1. Aurreko aktaren irakurketa eta onartzea.

Akta irakurri ondoren aho batez onartu genuen.

### 2. 1994. urteko ekintzen txostena.

1994. urteko apirilaren 13an eta abenduaren 29an ospatutako bileren aktetan jaso genituen ekintzen eta lanen informazioa eta balorapenak irakurri eta onartu genituen.

### 3. Balantze ekonomikoa.

Gure Elkarteko kontu liburuan jasotako diru mugimenduak ikusi genituen. Balantzea positiboa izan zen urtea bukaerako azken saldoa gure aldeko 21.329 pta.koa izan baita. Kontuak onartu genituen.

### 4. 1995. urterako egitasmoa.

#### 4.1 Aktibitateak:

- ⇒ “**Tokiko Bilduma**” egokitzen jarraitu, batez ere, materialen sailkapena eta kontserbazioa hobetzen. Arduradunak: Jon eta Antxon.
- ⇒ “Tokiko Bildumaren” bigarren **Katalogazioa** egin. Epea ekainean jartzen dugu, baina lan mardula denez atzera daiteke. Honetarako 400.000 pta.ko aurrekontua aurkeztu diogu Kultur Etxeari. Arduraduna: Iñigo.
- ⇒ “**Altza, Hautsa Kenduz III**” liburua urte amaierako prestatu. Honetarako, orain arte kolaboratu dutenekin harremanetan jarraitu behar dugu eta halaber lankide berriekin harremanetan jarri behar gara. Arduraduna: Iñigo.
- ⇒ **Kontaktuak** zaindu. Arduradunak: Jon eta Luis Mari.
  - ◇ Gurekin harremanetan daudenen helbideak osatu.
  - ◇ Ahal diren elkarrizketak egin.
  - ◇ Argazki berriak lokalizatu.
- ⇒ Altzaren ikuspegi orokorra jasoko duen **Poster** handia argitaratu. Posterrean argazki aereo batean oinarritutako kolorezko marrazki bat azaltzen da eta dagoeneko zenbait herri (Ermua) edota parke naturalenak argitaratuak izan dira. Aurrekontua ia miloi batekoa da eta finantziatzeko Donostia-Gipuzkoa Kutxa eta Euskadiko Kutxako zuzendariengana jo dugu proiektua idatziz azalduz. Arduradunak: Jon eta Luis Mari.
- ⇒ Altzari buruzko ikerketak bultzatuko lukeen **Bekarentzako** deialdia egin. Kontuan hartzen badugu Altzari buruz oso ikerketa lan gutxi egiten direla, beharrezko deritzogu ikerketa bultzatzea, beste herrietan egiten den bezala, sari baten bitartez. Adibide gisa, Zumalakarregi Museoak urtero egiten duen deialdia dugu edota Oiartzungo Udalak hilak 16ean egin duena. Gure kasuan gutxi gora-behera 200.000 ptako beka izango litzateke, Kutxa edo antzeko norbaitek finantziaturik.
- ⇒ Gipuzkoako **Artxibo**etan Altzari buruz dauden dokumentuen bilketa egin.

⇒ **Eskurtsioak antolatu.** Dagoeneko bi prestatu ditugu, bata martxoak 25 larunbata Angel Calvo gidaturik Izarraitzeko elurzuloak ezagutzera. Eta bestea, uda baino lehen eta Angel Calvo bera gidaturik Altzako mugak ikustera.

#### 4.2 Presupostua:

⇒ Diru-sarrerak: Kultur Etxetik etorriko direnak:

- ◇ Argazkien salmenta
- ◇ Katalogoa

⇒ Diru-sarrera berriak bilatu:

- ◇ KUTXA, Euskadiko Kutxa, Banco Santander,...  
Foru Aldundia

⇒ Gastoak eta inbertsioak:

- ◇ Ordenadorea bildutako materialak fitxatzeko
- ◇ Kaseta hizketaldiak grabatzeko
- ◇ Argazkiak kopiatzea
- ◇ Katalogoa argitaratu

#### 4.3 Elkartearen antolaketa:

⇒ Bazkide berriak Elkartera bildu.

⇒ Asteakenarena birplanteatu. Asteazkenero Kultur Etxean biltzearena oso ona izan da jendearekin harremanetan jartzeko, topagune bezala. Halabaina, funtzionamendurako ez da oso egokia izan eta beste zeozer pentsatzea beharrezkoa ikusten dugu.

⇒ Bazkideen arteko komunikazioa eta harremanak bultzatu, pertsonalki ezinezkoa baldin bada eskutitzez edota telefonoz, maiztasun minimo batez.

### 5. Oharrak.

5.1 Batzar Orokorra ezin izan dugu hasiera batean pentsatuta geneukan bezala burutu, hau da, asteburu batez eta aterpe batean.

5.2 Azken hilabeteotan jende berriarekin harremanetan jartzeko aukera izan dugu:

⇒ **Juan Carlos Mora:** Historialari eta altzatar gaztea, egunkariaren bitartez ezaguna geneukan Arrasateko Udalarentzat eta beka bati esker XVI. mendeari buruz egindako azterketa baten aurkezpena zela eta. Hala ere, ez genuen izan berarekin egoteko aukera eta, bere borondatez, urtarrilaren hasieran Kultur Etxean azaldu zen gurekin lan egiteko asmoz. Batez ere, bere burua eskaini du Tolosako Artxibategi Probintzialesetik Altzako familiei buruz dagoen dokumentuen bilketa egiteko, hala nola Altzari buruz aurki dezakeen edozein dokumentu gurenganatzeko. Bestaldetik, historialari bezala duen gaitasuna ikusirik, esku artean dugun Katalogazio lanerako berarekin kontatzea erabaki dugu.

⇒ **Javier Cantera:** Groseko lagun honek familia jatorriz altzatarra dauka, Iparragirre eta Txipres baserrietakoa, eta asteazken batean gurengana jo zuen hasiera batez ezezaguna duen Altza gehiago ezagutzeko gogoz eta, baita ere,

gure lanetan bere laguntza eskaintzeko asmoarekin. Aranzadi inguruan ibili izan da orain artean, apalki bada behintzat, eta prest zegoen gurekin lan egiteko batez ere jende zaharren esperientzien bilketa lanean eta jai eta erromerien inguruko gaietan.

Besterik gabe, Batzar Orokor hau bukatutzat eman genuen

Lehendakaria

Idazkaria

Jon Serrano

Iñigo Landa